

# Desagertzeko zorian dauden animaliak

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

*Ariketa-sorta honetan, desagertzeko zorian dauden animaliei buruz hitz egingo dugu, eta pottokari buruz batik bat.*

*Bideoa ikusi aurretik, erantzun beheko galderari eta ondoren, taldean komentatu.*



1. Euskal Herriko pottoka desagertzeko zorian dagoen animalia da. Munduan badira espezie batzuk egoera horretan. Aipatu ezagutzen dituzunak.
2. Zerrenda bat osatu atera diren animaliekin. Zein tokitakoak dira gehienak?

## 1- Pottokazaleak



*Bideoan, Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteko lehendakaria den Aitor Iraetarekin hitz egin dugu pottokaren egoeraren inguruan. Entzun ondoren, aukeratu beheko galderen erantzun zuzena.*

1. Lehen pottoka zertarako erabiltzen zuten?

- Makinak garraiatzeko erabiltzen zuten.
- Garraiorako eta lanerako erabiltzen zuten.
- Industrialiazioaren ondoren, pertsonak garraiatzeko erabiltzen zuten.

2. Zein zen pottokaren egoera 1996. urtean?

- Ez zegoen desagertzeko arriskuan.
- Desagertzeko arriskuan zegoen.
- Gaur egun baino pottoka gehiago zegoen.

3. Zergatik iritsi zen egoera horretara?

- Errentagarria izateko, pottokak beste arraza batzuekin nahastu zituztelako.
- Erabilerarik gabe geratu zelako.

4. Gaur egun, galtzeko arriskuan jarraitzen du pottokak?

- Bai, baino pixkanaka pottoka ari da bere lekua aurkitzen.
- Bai eta horrela jarraituko du, baldintzak ez baitira aldatu.
- Oraingoan bai, baina pixkanaka ari da pottoka-kopurua gehitzen.

## 2- Desagertzeko arriskuan

*Hainbat animalia desagertzeko arriskuan daude, eta horietako bat pottoka da. Irakurri gai horri buruzko testua eta azpimarra itzazu "-t(z)eko arriskuan (zorian)" egitura agertzen diren esaldiak.*

### **Zer animalia dago desagertzeko zorian?**

*Munduan 25.800 animalia eta landare-espezie omen daude desagertzeko zorian. Horixe jakinarazi du Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak (UICNk) urtero argitaratzen duen zerrendan. 2018an, 1.800 izen gehitu dizkiote gero eta handiagoa den multzoari: koalak eta itsaso-zalditxoak, besteak beste.*

*Animalia bat desagertzeko zorian egoteko, ugaltzeko moduan dauden 1.000 abere baino gutxiago egon behar dutela dio FAOk (Nazio Batuen Erakundeko Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak). 1996. urtean, euskal pottokaren egoera oso larria zen, desagertzeko arriskuan baitzegoen, "ia ez zen pottokarik ikusten Euskal Herriko larreetan", azaldu digu Aitor Iraetak. Bera Gipuzkoako Pottokazaleen elkarteko lehendakaria da, eta animalia honen egoerari buruz hitz egiteko elkartu gara berarekin. Hori bakarrik ez, Zaldibian dituen pottoka batzuk gertutik ikusteko aukera ere izan dugu.*

## **Desagertzeko arrazoiak**

Gizakia da animalia bat desagertzeko arrazoi nagusia, eta ugariak dira kalte hori eragiten duten arrazoiak: azpiegiturak eraikitzea (etxeak, zubiak, lantegiak...), ehiza eta arrantza, animalien trafikoa, kutsadura, suteak...

Pottoken kasuan, berriz, arrazoiak izan da pottokak ez direla erabiltzen. Lehen, garraio lanetarako erabiltzen zituzten, pertsonak edo objektuak leku batetik bestera eramateko. Industrializazioaren ondoren, ordea, makinak agertu ziren, eta pottokak ordezkatu zituzten, ez baitzuten behar garraiorako.

## **Irtenbidea**

Askotan egoerari konponbidea bilatzen saiatzen gara, baina beranduegi izan aurretik hartu behar dira erabakiak: birpopulatzea edo habitat bat berreskuratzea ez baita ahuntzaren gauerdiko ezstula.

Pottoken kasura itzulita, 1998an pottoka-arraza berreskuratzeko eta sustatzeko Gipuzkoako Pottokazale Elkarteak sortu zuten, eta Euskadikoa, berriz, 2004. urtean: "Argi geneukan Euskal Herri mailan egin beharreko lana zela. Horregatik, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako elkarteekin harremanetan gaude. Izan ere, uste dugu garrantzitsua dela norabide berean arraun egitea". Gaur egun, Euskal Herrian 90 bazkide inguru dituzte elkarte hauek eta 1.000 abere biltzen dituzte guztien artean.

Desagertzeko arrazoiak erabilerarik ez izatea zenez, elkarten bidez pottokari erabilera berriak bilatzea izan da helburua. Une honetan, bi helburu ditu: larreak garbi mantentzea eta hipika. Batetik, belarra jan eta larreak edo lorategiak garbi edukitzeko erabiltzen dituzte. Eta bestetik, gainean ibiltzeko, paseorako, eta jendearekin hainbat terapia egiteko. "Oraindik galtzeko arriskuan dago, baina elkartean merkatu berriak topatzen, sustatzen, ezagutzera ematen, irtenbide ekonomikoak bilatzen... saiatzen gara. Pottoka noizbait galtzeko zorian ez egoteko, gure lana garrantzitsua da", azaldu digu Aitorrek.

## **Hainbat kasu**

Hartz polarra, mendiko gorila, marrazo zuria, errinozero zuria, elefantea, atungorria, Amoyko tigrea, Arabiako lehoinabarra, lehoi afrikarra edo hartz panda, guztiak galtzeko arriskuan daude. Baina ez da hain urrun joan behar, gertuago ere baditu kasuak: behi betizua, euskal oiloak, Enkarterrietako astoa, behi terreña, sasi-ardia... Mordoxka bat dira.

Animalien errehabilitazio-prozesua luzea izaten da eta pottokena aspaldi hasi bazen ere, oraindik ere ugaltzeko moduan daudenak 1.000 pottoka baino gutxiago dira: "Bide onetik goaz, baina bidea luzea da, eta egunero egin behar dugun bidea da".



Testuan '-T(Z)EKO ZORIAN' eta '-T(Z)EKO ARRISKUAN' egiturak azpimarratu ditugu. Bete itzazu hutsuneak aditz hauetako bat erabilita: *hil, galdu, desagertu, lehertu.*

### **-T(Z)EKO ZORIAN/ARRISKUAN EGON/IZAN**

**Zer esan nahi du?** Ekintza hori gertatzeko puntu-puntuan dagoela. Ikusi testuko adibideak:

- *Gizakiaren eta klima-aldaketaren eraginez, zenbait animalia galtzeko zorian daude, adibidez, hartz polarra eta errinozero zuria.*
- *Munduan 25.800 animalia eta landare-espezie omen daude desagertzeko zorian.*

#### **Edozein aditzekin erabil daitezke?**

Ez, normalean patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen da: *hil, ito, desagertu, lehertu, erori, galdu, amildu, alferrik galdu...*

- Pottoka ez da \_\_\_\_\_ dagoen animalia bakarra Euskal Herrian.
- Europako zonalde batzuetan baso gutxi geratzen dira. Eta horregatik, zenbait zuhaitz \_\_\_\_\_ daude.
- Euskal oiloak gero eta gutxiago geratzen dira. Badirudi \_\_\_\_\_ daudela.
- Ardiak \_\_\_\_\_ daude, otsoak baitabiltza basoan.
- Txakurrak hainbeste jan duenez, oraintxe \_\_\_\_\_ dago.

## **3- Hemen gaude pottokaren alde!**

*Jarri binaka eta galderei erantzun. Ondoren, alderatu eta komentatu erantzunak taldekoekin.*

### **1. Animaliez gain, gainerako hauek ere desagertzeko edo galtzeko arriskuan egon daitezke:**

- Hizkuntzak
- Zenbait herri txiki
- Musika-mota bat
- Erritoak
- Dantzak
- Lagunartean abestea...

### **2. Aukeratu bat eta egin horren aldeko aldarrikapena. Erreparatu adibideari:**

*Garai batean euskaldunok afarietan, bilkuretan eta abar abesteko ohitura handia genuen. Baina, gaur egun ohitura hau galtzeko arriskua ikusten dut. Nik uste dut ohitura hau berreskuratzen saiatu behar dugula, gure kulturaren zati bat delako. Ez zaizu iruditzen?*

## 1- Pottokazaleak

1. *Lehen pottoka zertarako erabiltzen zuten?*

Garraiorako eta lanerako erabiltzen zuten.

2. *Zein zen pottokaren egoera 1996. urtean?*

Desagertzeko arriskuan zegoen.

3. *Zergatik iritsi zen egoera horretara?*

Errentagarria izateko, pottokak beste arraza batzuekin nahastu zituztelako. Erabilerarik gabe geratu zelako.

4. *Gaur egun, galtzeko arriskuan jarraitzen du pottokak?*

Bai eta horrela jarraituko du, baldintzak ez baitira aldatu.

## 2- Desagertzeko arriskuan

- Pottoka ez da (galtzeko zorian) dagoen animalia bakarra Euskal Herrian.
- Europako zonalde batzuetan baso gutxi geratzen dira. Eta horregatik, zenbait zuhaitz (desagertzeko zorian) daude.
- Euskal oiloak gero eta gutxiago geratzen dira. Badirudi (desagertzeko zorian) daudela.
- Ardiak (hiltzeko arriskuan) daude, otsoak baitabiltza basoan.
- Txakurrak hainbeste jan duenez, oraintxe (lehertzeko zorian) dago.

